
BERTSO BARRIAK

Sinismen pozak ekarri gaitu
Madalengo eleizara,
egi egitan maitagarri dan
zelai buru onetara,
urterik urte, emen, daukagu
ama on baten gizara,
gure otoiak goratuteko
Aita onaren aurrera.

Gure arbaso zoragarriak
egiz, maite eben lurrian,
zeru ta lurra egin zituan
Jainko Altsuak bizian,
otoi ederrak egin ebezan
ermitatxo ederrian,
maitasun garrez apaindurikan
biotza sinismenian.

Zorioneko eginbidea
ederra ederrenetan,
Jainko Altsuaz alkartutea
geroko itxaropenetan,
amaigabeko aldia dator
ortzi goitikan barrenetana
au da zoria asmetan dana
Aitaren etxe onetan.

Goietako plazaren bedeinkapena

Jaungoiko Jaun Guztiz Altsua.
Goietako plaza au bedeinkatu egizu,
ta emen, osasun, onoiemen, apaltasu-
na, ontasuna, Jaungoiko Seme ta
Gogo Deunarenganako esker ona
izan daitezela ta bedeinkapen onek
toki ontan ta emen, dabilzanengan
iraun dagiala orain eta beti.

Mungiar anai zoragarriak
emen, naz zuen artean,
gogo ta gorputz oso osorik
Mungiaren biotzean,
erri eder bat ikusi neban
nere begien aurrean,
geroztik, beti, maite izan dot
egiaren omenean.

Jendetz ederra ikusten nago
begi biekaz bizirik,
plazea eder, baserri zabal
biotza lilluraturik,
egi egitan esan bear dot
zer da gauz bikaiñagorik,
danen artean alkartasuna
maitasunez indarturik.

Danok batera otoi egiten
etorri gara plazara,
toki onentzat gura Aitari
bedeinkapen eskatzera,
egunik egun, urterik urte
doala, beti, aurrera,
anaitasunez indarturikan
Aita onenaz batera.

Mungian zear

Bide zabal dagoz
lurrean mendi aundien artean
egi egitan, maitagarri da
lurra gizonen menpean,
zuretako da lautada dana
bizitz onen bitartean,
bene-benetan, maite dozu-ta
zelai orleia aurrean.

Gora Mungiko kristau leialak
onena aukeraturik,
Aita on bera begira dago
biotz osoaz zabalik,
zuen bizia maite dau gogoz
iñoz aspertu bagarik,
bizitz onena, beti, opaka
seme-alabei gogotik.

Goitik beraiño eder zakusdaz
ene Mungia maitia,
solo ta mendi, arkaitz tontorrak
dana ametsen kabia,
arto ta gari emon zenduzan
gizonentzat janaria,
seme-alabak zuri eskarrez
onduten eben bizia.

Aurrera Mungi sinesteduna,
zuentzat da zerua,
jarrai otoika, ona egiñaz
erritarroi alkartuta,
anaiari on, Jaunari otoi,
ondoren dator saria,
argiz ta pozez bete-beterik
zeru goiko erreñuan.

Arkaitz ta gizon ezin bardindu
bizitzaren inguruan,
arria illun, gizona argi
agertzen dira munduan,
lur onetako seme-alabak
zurki, dabilnaz jokuan,
gauz ederrena ederren legez
artzeko urdin zeruan.

Paulin



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU